



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko abenduaren 26a

42. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (2. or.).
- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (6. or.).
- Galdera, banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (6. or.).
- Galdera, galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (8. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko abenduaren 13an egindako Osoko Bilkuran, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen, eta 2007ko urriaren 23ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege

proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko abenduaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentutaldeen aurkeztu zuen, 2007ko urria-

ren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147., 151. eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubide Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatu-**

**ko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko abenduaren 13an egindako Osoko Bilkuran, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen, 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

**1.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatu-ko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzekoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko abenduaren 13an egindako Osoko Bilkuran, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes

ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko, Nafarroako Gobernua premiatzen duena autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter dezan Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere, eta, halaber, geroago Industria Ministerioarekin behar diren zuzemenak egin ditzan lurreko telebista digitaleko multiplexa Nafarroari esleitzen, aurrekoa helburu.

Zioen azalpena:

Industria Ministerioak, lurreko telebista digitalaren plan teknikoaren barruan, errege dekretu bat prestatu du beste multiplex bat gaitzeko; autonomia erkidegoek, multiplex hori lortu ahal izateko, eskatu egin beharko dute eta, aldez aurretik, sinatua beharko dute "beren telebista publiko autonomikoko programa bat edo gehiago beste erkidego batzuetan emititzeko lankidetzat hitzarmen bat."

Dekretuak esleipena egiteko jartzen dituen baldintzak dira kateek mugakide diren lurraldeetarako izan beharko dutela eta Industria Ministerioak emandako frekuentziak erabili beharko dituztela.

Nafarroaren mugakide diren autonomia erkidegoekin lankidetzat hitzarmenak sinatuta, gure herritarrek aukera izanzen lukete Nafarroako kanalak ez ezik erkidego mugakideetakoak ere sintonizatzen, eta, horretarako, Industria Ministerioari eskaera egin aurretik gauzek prest behar dute. Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, honako mozioa aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezen, behin hitzarmenak sinatuta, Industria Ministerioari eska diezaion lurreko telebista digitaleko behar den multiplexa esleitzen diezaion foru erkidegoari.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Camino de Santiago ikastetxe publikoko modulu aurrefabrikatua kentzeko epeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzuteko:

Zizur Nagusiko Camino de Santiago ikastetxe publikoan bada modulu aurrefabrikatu bat –Parlamentuko hizkeran "barrakoi" esan ohi zaie– orain hutsik dagoena. Modulu hori, beharbada, beste ikastetxeren batean beharko da, eta Zizurkoan, aldiz, ikastetxearentzat beharrezkoa den leku bat hartzen ari da.

Hori dela eta, hona galdera:

Noiz du Hezkuntza Departamentuak asmoa Zizur Nagusiko Camino de Santiago ikastetxe publikotik modulu aurrefabrikatu hori kentzeko?

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## **Galdera, banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lau urte baino gehiago daramatzagu, VI. legegintzaldian Eusko Alkartasuna parlamentu-taldearen bidez eta orain Nafarroa Bairen bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen Nafarroako herritar guztiei berma diezaien banda zabaleko Interneteko sarbidea. Landa eremuetan, hau da, ADSLrik ez dagoen lekuetan, haririk gabeko teknologia da konponbide bakarra. Egiten ari diren urratsak –uzkurak betiere– gorabehera, ez dago esaterik Nafarroako Gobernuak arazoari behar den arretarekin heldu dionik, baldin eta "makillaje-neurri" hutsez haratago joanen den benetako konponbidea lortu nahi badu. Horrela, ikusten dugu Interneteko sarbidea ez zaiola herritarren % 100i iristen eta badirela lekuak non benetan lortzen den gehieneko abiada barregarria den egungo estandarrei begiratuta (badakigu informazioa jaisteko gehieneko abiadak doi-doi gaintzen duela eremu oso zabaletan kontratu profesionalerako kontratatutakoaren % 20, baina, hara zer kasualitateal, sekula ere ez da balio horretatik mugitzen, eta, noski, hurbildu ere ez da egiten kontratatutako zenbatekora). Gainera, zerbitzua Iberbandak ematen du eta enpresa horren bazkide nagusia Telefónica da; horrek eragin dezake enpresa nagusiak ADSL jartzeko interesa galtzea, eta, Iberbandaren bidez, kalitate askoz okerragoko zerbitzua ematera mugatzea, eta, bereziki, zerbitzu askozaz ere garestiagoa azken erabiltzailearentzat, kalitatearen eta prezioaren erlazioa kontuan hartzen baditugu.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak asmorik banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeko?

2.- Ezarri al dio Nafarroako Gobernuak kalitate-kontrolrik Iberbandak emaniko zerbitzuari : intzidentziak/etenak, benetako emarien estatistikak (igotzeko eta jaisteko abiada), telefono arretaren zerbitzua (bezeroaren arretarako zerbitzuak –1632 telefono zenbakia– kasu egiteko zenbat denbora

behar izaten den). Ez badu halako kontrolrik egin, ba al du halakorik egiteko inongo asmorik?

3.- Nafarroako Gobernuaren ustez, onargarria al da kontratatutako emari nominalaren % 10 edo % 20 bermatzea (kontratu motaren arabera), operatzaileak zerbitzua emari horrekin eman dezakeen denbora inola ere mugatuta ez duela, nahi dena baldin bada nafar guztiek benetan izatea dena zabaleko Internet?

4.- Onargarria iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari Iberbandaren laguntza teknikoak errekamazioei kasurik ez egitea emariak kontratatutako emariaren % 10 gaintzen duenean?

5.- Onargarria iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari Iberbandaren zerbitzuari buruzko informazio-orrian, non Nafarroako Gobernuaren anagrama ageri baita, adieraztea, adibidez, "Internet 512 Kbps / Internet 1 Mbps...", "Konexio simetrikoa (abiada bera datuak bidaltzeko eta jasotzeko)", baina ez zehaztea bermatutako emariak, kontratua zein den, % 10 edo % 20 ingurukoak direla, are gehiago hornitzailearen (Iberbanda) webgunean adierazten denean protokoloak eta bestelakoak direla-eta abiadaren % 20 gal daitekeela gutxi gorabehera, baina ez inondik ere % 80-% 90 –hori da Nafarroako zenbait tokitan benetan galtzen den abiada–?

6.- Ba al du Nafarroako Gobernuak inongo asmorik ekintzarik sustatzeko beste operatzaile batzuek ere eskaini ahal izan dezaten banda zabaleko Internet zerbitzua landa eremuetan, horrela, lehiaren bidez, azken erabiltzaileek eskaintza handiagoa eskura izateko eta ez egoteko, orain bezala, de facto monopolioa duen operatzaile baten eskuetan?

7.- Era berean, eskatzen dugu Iberbandaren zerbitzua arautzen duen kontratua, bai eta kontratuaren euskarri den prozeduran izaniko lehiaketadialdiak, baldintza-orriak eta abar. Bestalde, mapa bat eskatzen dugu, erakusten duena zer eremutan gaur egun baden sarbidea, eta zer eremutan aurreikusten den izan den dela sarbidea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruzkoa.**

**AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, galtzadan gai labaingarriak izatearen ondorioz gertaturiko zirkulazio istripuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azkenaldi honetan zirkulazio istripu ugari gertatzen ari dira, galtzadan olioak, koipea edo beste-lako gai labaingarriak isurita egotearen ondorioz; istripu horietako batzuek ondorio larriak izan dituzte, eta zailtasun handiak eragin dituzte kasu guztietan.

Azaroaren 29an, Lekunberrin, A-15 autobioaren 126. kilometro puntuan, 20:00etan, hiru istripu gertatu ziren elkarren segidan, errepidean zegoen gairen bat zela eta.

Pentsatzekoa da Nafarroako Gobernuak baduela istripu horien berri; hori dela eta, hau jakin nahi dut:

– Ba al du Nafarroako Gobernuak ezer berezirik egiteko asmorik horrelako gertaerak kontrolatzeko?

– Administrazioak zer irizpideren arabera erabakitzen du sortzen diren kalte-galerak ordaintzea?

– Azken hiru urteotan antzeko gertakarien ondorioz aurkeztutako erreklamazioetan, zenbat izan dira herritarren alde ebatzitakoak?

Iruñean, 2007ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	